

BILBO

DEBEKATUAREN MAPA

Arrate Diez



Jesus Galindez kalea - OTXARKOAGA • TXURDINAGA

Leku ilun eta zeharo bakartia da hau, erabat ezkutatuta dago eta oso arriskutsua, beraz. Bai Otxarkoaga aldera zein Begoña aldera jotzeko seinaleztapen eta argi gutxi duen zonaldea da. Alde batean besterik ez daude etxebizitzak eta oso leku isolatua da, gauzez ez baitabil inor ere hortik. Doazenak kotxez zein taxian egiten dute ematen duen segurtasun ezagatik. Errepidea oso zabala da eta ezkutaleku asko dago inguruan (etxeetako aterpeak, bus geltokiak, ...). Ikastetxeak besterik ez daude alde batean eta gauzez oso bakartia da.



Europa parkea - OTXARKOAGA • TXURDINAGA

Oso handia da eta apaingarri elementu asko dituena, egunean zehar ikusgarriak izan daitezkeenak, baina gauean ezkutalekutzat har daitezkeenak. Ez da leku segurua gauzez eta erasota izanez gero eta oihukatuz gero ez dizu inork entzuten. Gainera, aterpe eta tunela ere badaude Txurdinaga aldera, leku arriskutsuak direnak. Alde batean polikiroldegia besterik ez dago eta beraz gauzez oso leku bakartia eta beldurgarria da.



Maristas eskailerak, Iturribide eta Prim - SANTUTXU

Iturribide kalea oso luzea da eta tartean dauden eskailerak Maristas eskolatik gora zein polikiroldegira joateko oso leku ilunak, arriskutsuak eta zaindugabeak dira. Ezkutatzeko leku asko ditu etxe arteko eskailera estuean eta gauzez, astean zehar batez ere, ez dabil inor ere bertatik.

Prim kalean nahiz eta goiko partean igogailua eta umeentzako kulunkak jarri dituzten, oraindik ere toki iluna da, hutsik eta zaindu gabe dauden etxeak ditu. Ezkutatzeko atarape aproposak eta Masuztegi kalearekin lotzen duten eskailera ez zainduak eta arriskutsuak daude. Konponbidea zonalde hauetan dauden loja eta etxeak konpontzea eta argizatzea litzateke.

Ollerias - SANTUTXU • ALDE ZAHARRA

Zonalde hau ere oso leku iluna eta bakartia da gabez. Etxe arteko eskaile-ratatik ezkutaleku asko daude eta erasota izateko leku aproposa. Argizta-pen eta zainketa hobea behar duen zonaldea da. Ondoan duen Alde Zaharrera jaisteko Camino del Bosque jaitsiera ere oso abandonatuta dagoen tokia da, etxeak hutsik eta erdi jausita daude. Ez da leku batere segurua ez baitu argirik ezta nora jotzerik erasota izanez gero.



Irala kalea - ERREKALDE • IRALA

Irala kalea Zabalburu eta Errekalde lotzen dituen kale luzea da. Kale hau beste hiru kalerekin gurutzatzen da eta haietariko batek, Ugalde kaleak, Ametzola parkearekin egiten du bat. Ez da leku oso argiztatua eta gabez ez dago bizitza handirik, tabernak itxita eta bakardade handia duen kalea dugu. Gainera kale honen parean, Kirikiño Etorbidean, egoera antzekoa da, han zeozer gertatuz gero ez baitago ezer ere ez. Izan ere, eta Bilboko alde honi dagokionez, Juan de Garai eta Torre Urizar lotzen dituzten eskailerek ere argitasun gutxi eta segurtasun eza ematen dute, iluntzean batez ere.



San Frantzisko - SAN FRANTZISKO

Batere zainduta ez dagoen kalea da. Eraikinak oso zaharrak dira, argiztapen gutxi eta zikinkeria duen gunea. Garbitasuna, argiztapena eta berrikuntza behar duen zonaldea da. San Frantzisko Hurtado de Ameza-garekin lotzeko dagoen kalea, Iturriza kalea ere, estua eta iluna da ere nahiz eta espaloiak handitu dituzten eta alde bateko aparkalekuak kendu ere, kale gatazkatsua izaten jarraitzen du. San Frantziskok hainbat kale zeharkatzen ditu, Conde Mirasol, Cantalojas...eta hauek ere kale ilunak dira eta arrisksuak gau partean ibiltzeko. Fleming Doktorea plazak ere ez du segurtasun handirik ematen.



Bailen - Renfeko aparkalekua - ABANDO

Zonalde iluna da hau, batez ere, Renfeko aparkalekura ematen duen alde-a. Aparkaleku hau zabaldi handia da eta ezkutatzeko leku asko dago, ez da batere leku segurua, ez baitu argiztapen nahikorik. Behin FEVEko geltokia igarota ere oso kale estu, txiki eta iluna dago. Hau leku arrisksua da nahiz eta burtsako eraikina bertan dagoen. Pasabide bat da, irtenbide gutxikoa eta argiztapen handiagoo beharko luke. Bilboko zen-troan dago baina ez dago batere zainduta.





Miribillako parkea - BILBO ZAHARRA

Oso leku bakartia da oraindik, oso zabala eta oihukatuz gero ez dizu inork entzuten, ez da leku segurua. Gainera, aldapatsua da eta etxebizitzak beste goragoko altuera batean daude. Ez da leku jendetsua eta gauen bertatik igarotzea baino jendeak nahiago du buelta osoa eman. Seinaleztapena falta zaio, errez galdu baitzaitezke eta oraindik ere ez dauka auzo itxurarik, ez dago bizitza handirik. Aurrerantzean bizitasuna emateko jarduerak antolatzea eta lokalak jartzea espero dugu.



Arangoiti - DEUSTO

Nahiz eta azken urteotan eraikin berriak jarri dituzten, oraindik ere kale ilunak eta estuak daude Arangoitin. Izan ere, Deustutik Arangoitira doan igogailurako bidea beldurgarria da, tunela oso txarto dago. Batere zaindu gabeko zonaldea da eta konponketen artean ingurua garbitu, margotu eta argitasuna ematea leudeke. Arangoitirako bidea kotxez ibiltzeko konpondu duten arren, oinezkoentzat ez dute alternatiba handirik eman, eta dauden bideek segurtasun eza handia dute.



Orixe - SAN INAZIO

Kale honek Ibarrekolanda, San Inazio eta Elorrieta zeharkatzen ditu. Kale handi, zabal, ilun eta bakartia da. Kale honek argiztapen handiagoa behar du, izan ere, Agirre Lehendakaria etorbidea eta Enekuriko etorbide artean dagoen kale isolatua da. San Inazio lo egiteko toki bezala dago, auzo bizitza urria baita bertan. Aisialdian Deustura ala Bilbora jotzen dute auzokoek, beraz, nahiko utzita dago. Konponbidea, auzo bizitza indartzea eta toki ilunak argiztatzea litzateke, besteak beste.



Zabalburu - Nikolas Alkorta - IRALABARRI

Zabalburu ingurua oso leku iluna da, batez ere, etxe orratzen behealdea txoko ilunez beteta dago. Gainera obretan dihardute eta luzerako direla dirudi. Egoera honek ez dio askorik laguntzen zonalde honi, izatez, bakartia dena. Zabalbururaino doan Hurtado de Amézaga bera ere, egunean zehar jendez beterik egoten da baina pasoko leku bihurtu da. Behin dendak ixten dituztenean ez dago bizitarik kale honetan eta ez gara eroso sentitzen bertatik pasatzean. Hau gutxi balitz, Nikolas Alkorta kalea ere oso iluna da eta zaindu gabe dago, errebate eta zutabe asko dituelako. Elkano kaleko azken zenbakietan ere liskarrak egoten dira eta kalezulo bat ere dago.

Doña Casilda parkea - ABANDO • INDAUTXU

Parke hau oso leku isolatua da gau partean batez ere. Zabaleria handia du eta ez du segurtasun handirik ematen erasoren bat gertatuz gero nora jotzerik ez baituzu. Gainera Pergola gunetik ez pasatzeagatik oinezko askok parke osoa inguratzen du, hainbat leku baitago bertan ezkutatzeko. Parke honetako txoko ilun eta arriskutsuak sortzen dituzten apaingarrirako elementuak kentzea, argiak jarri eta telefono kabinaren bat jartzea ondo legoke.



Mazarredoko eskailerak - ABANDO

Mazarredoko eskailerak oso leku iluna da eta bertatik ez dabil inor ere ez gauean, beraz, oso egokia erasota izateko. Lapurreta asko egon da bertan eta jaisterakoan ez da ezer ere ez ikusten. Argiztapen handiagoa behar duen zonaldea da eta baita garraio publiko gehiago behar duena, nahiz eta izen handia izan, bertan ez dago ezer ere ez. Oso leku isolatua da nahiz eta hotelak eta enpresak egon eskailerak jaitsita.



Trenbideko Kalea - BASURTO

Ez da leku argiztatu eta arriskutsua da FEVEko tren geltoki bidea. Basurto auzoak azpiegitura sendo asko ditu (Ospitalea, Unibertsitatea, Termibus, Suhiltzaileak...) baina auzo bizitza egitera animatzen ez duen auzoa da, izan ere, auzo erditik autopistarako bidea pasatzen delako, besteak beste. Autopista azpiko aparkalekuek ere ez dute segurtasun handirik ere ematen, ezkutalekuak daude eta eraikin zaharrak ondoan. Basurtuko gune asko oso bakartiak dira eta ez dute berezko bizitzarik.



Katuen eskailerak - URIBARRI

Bilboko Udaletxeko atzeko aldean dauden eskailera estuak dira. Oso leku aproposa lapurreta zein erasoetarako, ez baita argitasunik. Jende gutxi igo zein jaisten da aipatu eskaileretatik, are gutxiago gauen bada. Lekua argiztatu eta bide alternatibo gehiago jarri beharko lukete oinezkoentzako. Uribarri aldean ere hainbat zaindu gabeko toki dago. Esaterako Kristo kaletik Uribarriko eskoletara doazen eskailerak ere ez dira seguruak gau partean. Argiztapen gehiago eta oinezkoentzako kaleak txukuntzea lirateke irtenbide batzuk Uribarri-Zurbarango gune beltz hauek ekiditeko.

